Donostia, 2023ko urtarrilaren 17a

06/23 PRENTSA OHARRA

IBILBIDE ETA GELTOKI ALDAKETAK AUZOETAN DANBORRADAK DIRELA ETA

Auzoetako danborradak eta jaiak direla eta, **urtarrilaren 19an eta 20an** ondorengo geltoki eta ibilbide aldaketak egingo dira Dbusen zerbitzuetan:

Osteguna, urtarrilaren 19a

- **14-BIDEBIETA LINEA**

Bidebieta itxita egongo da **14:45etik 16:15era** gutxi gorabehera. Zerbitzuek Juan XXIII-en emango dute bira.
Zerbitzurik gabe geratuko dira Bidebietako Anbulategia, Julio Urkijo 38 eta Serapio Mujika 29 geltokiak. **Juan XXIII (Kiroldegia) geltokira** lekualdatuko dira.

- **21-MUTUALITATEAK-ANOETA LINEA**

16:30etika 17:30etara gutxi gorabehera 21 linea ez da sartuko Colladotik eta Jose Maria Salaberriatik. Errondo Pasealekutik joango da eta 43-Anoeta-Igara linearen geldialdiak egingo ditu.
Collado eta J.M. Salaberria geltokiak **Errondo eta Errondo-Podavines geltokietara** lekualdatuko dira.

- **5-BENTA BERRI LINEA**

Matia kalea itxita egongo da **18:30etik aurrera**, beraz zerbitzuek Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetatik igaroko dira.
Bertan-behera geratuko dira Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32 eta Zarautz 90 eta Zarautz 122 geltokiak. **Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetara** lekualdatuko dira.

Ostirala, urtarrilaren 20a

- **5-BENTA BERRI LINEA**

Matia kalea itxita egongo da **egun osoan zehar**, beraz zerbitzuak Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetatik igaroko dira.
Bertan-behera geratuko dira Matia, Benta Berri R.M. Azkue, R.M. Azkue 32 eta Zarautz 90 eta Zarautz 122 geltokiak. **Zumalakarregi eta Tolosa Hiribideetara** lekualdatuko dira.

- **14-BIDEBIETA LINEA**

Bidebieta itxita egongo da **11:15etik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara** gutxi gorabehera. Zerbitzuek Juan XXIII-en emango dute bira.
Zerbitzurik gabe geratuko dira Bidebietako Anbulategia, Julio Urkijo 38 eta Serapio Mujika 29 geltokiak. **Juan XXIII (Kiroldegia) geltokira** lekualdatuko dira.

- **9-EGIA-INTXAURRONDO LINEA**

16:00etatik 22:30era gutxi gorabehera ez da joango Egia kaletik, Karmengo Amatik eta Ametzagainatik, beraz geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. **Lotura zerbitzua egongo da Boulevard eta Mandasko Dukearen artean**. Gainera, 9-Egia-Intxaurrondo lineak honako ibilbide hau egingo du:

- Egia-Intxaurrondo alderantz, geldialdi hauek egingo ditu: Boulevard 15, Askatasunaren Hiribidea 15, Pinudi, Euskal Herria, Jaialai, Fernando Sasiain, Galizia 18, Galizia 28, Bustintxulo eta Baratzategi 21.

- Erdialderantz, geldialdi hauek egingo ditu: Baratzategi 21, Txara II, Zarategi 71, Mons 77, Kotxerak CTSS, Arbos Musikaria, Ategorrieta 31, Galtzada Nagusia 21, Kursaal eta Boulevard 15.

- **13-ALTZA-BUENAVISTA LINEA**

18:30etik 21:30era gutxi gorabehera, Txirrita Bertsolariaren kalea itxita egongo da. Ibilbidea Buenavista, Altzako kaskoa eta Martillunetik egingo da.
Txirrita Bertsolaria-ko geltokiak bertan-behera geratuko dira. **Aitz Gain eta Larratxo geltokietara** lekualdatuko dira hurrenez hurren.

- **17-GROS-AMARA-MIRAMON LINEA**

Prim kalea itxita egongo da **17:30etik 21:00etara** gutxi gorabehera. Ibilbidea Federico Garcia Lorca, Lehendakari Agirre Zubia eta autobus geltoki zaharretik (geldialdia behin-behineko postean) egingo du.
Bilbo Plaza, Ehunurteurrenaren Plaza eta Antso Jakituna 28 zerbitzuz kanpo geratuko dira. **Iparreko Geltokira eta autobus geltoki zaharrera** lekualdatuko dira hurrenez hurren.

- **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO LINEA**

Prim kalea itxita egongo da **17:30etik 21:00etara** gutxi gorabehera. Federico Garcia Lorcatik joango da, Lehendakari Agirre Zubia, aurrera jarraituko du Amara Plaza Hotelaren aldemenetik eta zuzenean aterako da Pio XII geltokira berriro ohiko ibilbideari heltzeko.
Bilbo Plazako eta Ehunurteurrenaren Plazako geltokiek ez dute zerbitzurik izango. **Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

Era berean, **urtarrilaren 20an, ostiralean, 16:00etatik 20:00etara** gutxi gorabehera ondorengo aldaketak egingo dira Erdialdean:

- **5-BENTA BERRI, 16-IGELDO, 18-SEMINARIOA, 25-B.BERRI-AÑORGA, 33-LARRATXO-INTX.-ANTIGUO ETA 45-ESTACIONES RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE LINEAK:**

- Erdialderantz, Zumalakarregitik aurrera ondorengo ibilbidea egingo dute: Pio Baroja, Izoztegi, Pio XII, Bizkaia pasealekua, Foru Pasealekua (17 linearen geltokiak eginez) eta Etxaide kaletik jarraituko dute eta ohiko ibilbidearekin jarraitzeko. 45 lineak Santa Katalina Zubitik jarraituko du Geltokiak alderantz.

Ondarreta, Zubieta Plaza, Askatasunaren Hiribidea 31 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak kendu egingo dira. **Esklabak geltokira eta Foru Pasealekura** eramango dira.

- **19-AIETE-BERA BERA ETA 31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA LINEAK:**

- Erdialderantz, La Cumbretik, ondorengo ibilbidea egingo dute: Lazkano Pasealekua, Izoztegi, Pio XII, Bizkaia pasealekua, Foru Pasealekua (17 linearen geltokiak eginez) eta Etxaide kaletik jarraituko dute ohiko ibilbidearekin jarraitzeko.
Marianistak eta Easo 27 geltokiak kendu egingo dira. **Foru Pasealekura** eramango dira.

- **21-MUTUALITATEAK-ANOETA, 28-AMARA-OSPITALEAK ETA 37-RODIL-ZORROAGA LINEAK:**

- Erdialderantz: Antso Jakitunetik Luca de Tenara joango dira, Bizkaia pasealekua, Foru Pasealekua (17 linearen geltokiak eginez), Etxaide eta ohiko ibilbidea berreskuratuko dute.
Antso Jakituna 11, Easo Plaza, Easo 19 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak kendu egingo dira. **Antso Jakituna 35era, Antso Jakituna 33ra, Foru Pasealekura eta Okendora** eramango dira hurrenez hurren. 37 lineak geldialdia egingo du **Askatasunaren Hiribidea 3an**.

- **36-SAN ROKE-ALDAKONEA LINEA:**

- Aldakonea alderantz, Easo Plazatik aurrera ondorengo ibilbidea egingo du: Moraza, Urbieta, Mendeurrena, Parke kalea, Gernikako Arbola, Foru P., Etxaide (Askatasunaren Hiribidea 3an geldialdia eginez) eta ohiko ibilbidea berreskuratuko du.
Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea 19 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira. **Easo Plazara eta Askatasunaren Hiribidea 3ra** eramango dira.

Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 900840146 telefono zenbakian.